

## **BALIOZKO PROPOSAMENA**

Gure produktua ohe tolesgarri bat izango da, asko bidaiatzen duten pertsonetarantz zuzenduta dagoena nagusiki. Gure produktuarekin lortu nahi dugun helburua toki berri batera egokitzeko behar den denbora murriztea da, produktu eroso eta eramangarri bat sortuz. Horrela, deskantsatzeko orduak hobeto aprobetxatzen lagunduko diegu denboraldi batez etxetik kanpo egon behar diren langileei. Frogatuta dagoenez, ondo deskantsatzeak abantailak ekartzen ditu lan munduan hala nola langileak eskaintzen duten arreta igotzea, ikasketetan abantailak izatea eta gauzak gogoratzeko gaitasun handiagoa izatea beste gauza batzuen artean.

Lehendabizi gure ohe tolesgarriari esker gure bezeroei erosotasuna eskainiko diegu, gure produktua poliuretanoz eta altzairuz osatuta dagoelako portzentai handi batean. Poliuretanoa ohearen koltxoia egiteko erabiliko dugu, oso material moldagarria baita eta altzairua ohearen oinak izango diren lau hankak eraikitzeke. Material hauei esker, gure ohea eroso izatea, eramankorra izatea eta edozein egoeratan moldatzeko gaitasunak dituen produktu bat eskainiko diegu bezero bakoitzari. Horrez gain ohea eraikitzeke orduan bezeroek ez dute arazo handirik izango, oso erabilera sinplea duelako. Bezeroek egin behar duten gauza bakarra ohearen lau hankak koltxoiak izango dituen lau irekiguneetan sartzea eta estutzea izango da. Hala ere instrukzio batzuk eskuragarri izango dute laguntza gisa.

Horrez gain gure produktua klase erdiko pertsonetarantz zuzenduta dago, honekin esan nahi dut gure ohearen merkatuko prezioa nahiko eskuragarria izango dela, zehazki 162,35€ balioko luke. Produktu estandarra hipermerkatuetan, kirol denda batzuetan edo gure webgunean aurkitu dezakegu. Bezeroek zehazki erosotasuna bilatzen badute bertsio pertsonalizagarri bat eskuratzeko aukera izango dute. Bezero batek produktuaren bertsio pertsonalizagarria nahiko balu, gure webgunean bilatu beharko luke soilik, bertan ohearen tamaina eta neurriak eskuragarriak izango ditu.



Bestalde, beste salmenta bide bat izatea pentsatuta dugu, krisi egoeran dauden edo gerra egoeran dauden herrialdeetarantz zuzenduta dagoena. Ideia hau COVID-19aren pandemiak utzi dituen ondorio ekonomikoak kontuan hartuta erabaki dugu. Bertan gure oheak eskainiko ditugu gure oheen beharra ezinbestekoa baita. Ondoren, larrialdia pasa eta gero komisio txiki bat ordaintzea eskatuko diegu herrialde hauei gure laguntza prestatu izanagatik. Horrela, herrialdeak laguntza eskuratuko du eta gu ordainean etekin ekonomikoa lortuko dugu.